

HAIZEAK HOLANDAKO TRENAK GIDATZEN DITU

Posted on 17/01/2017 by Naider



600.000 lagunek bidaiatzen dute egunero Holandako trenetan, eta guztira 5.550 bidaia egiten dituzte egunero. Dagoeneko autoak baino garraio-aukera jasangarriago baten aldeko apustua egin bazuten, 2017ko urtarrilaren 1etik euren bidaien CO2-aztarna zero da, Herbehereak trenek parke eolikoetako energia eskusiboki erabiltzen duten munduko lehen herrialdea izatea lortu baitu.< /h3>

Holandako NS tren konpainiak iragarri du, [-<k jakinarazi](#)

[duenez. en >Herrialdea](#) edo [The Guardian](#). Duela bi urte, NS-k hitzarmen bat sinatu zuen Eneco elektrizitate konpainiarekin trenbide-bidaletako isuriak izugarri murrizteko. Akordioaren arabera, 2018an egin behar zen energia %100 berriztagarrien erabilerarako aldaketa, baina 2016an energia garbira %75era iritsi ostean, urtebete lehenago lortu da mugarria.

NS-k egunero garraiatzen duenerako, [1.200 milioi kilowatt behar ditu](#). urtean, hau da, Amsterdameko etxebizitza-parke osoaren elektrizitate-kontsumoaren baliokidea. Beraz, urrats garrantzitsua da karbono isuriak murrizteko, nahiz eta Herbehereetako CO2 osoaren bosten bat gasolina eta diesel autoetatik eratorri den. Proiektuan erabilitako energia eolikoa Herbehereetan, Belgikan eta Finlandian eraiki berri diren errota lantegietatik dator, aurreikusitakoa baino bizkorrago amaitu baitira. Turbina bakarraren ordubeteko funtzionamendua nahikoa da tren baten ibilbidea egiteko 200 kilometrotan

.

There are no comments yet.